

## Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

449

AGINDUA, 2011ko urtarrilaren 19koa, Kulturako sailburuarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumean xedatutako euskararen komunikazio-gaitasunen mailak egiaztatzeko oinarri berriak zehazten dituena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak Arautzekoak, 20. artikuluan dio Kultura Sailari dagokiola euskalduntze-alfabetatzegintzaren maila bakoitzaren amaieran eman beharreko egiaztigiri eta ziurtagiriak arautzea. Lege horren 2.g) artikulura biltzen da, HABEren egitekoen artean, euskaltegietan helduentzako euskalduntze zein alfabetatzegintzako ikastaroak gaingiditzen dituztenei luzatu beharreko egiaztigiri eta ziurtagiriak Kultura Sailari proposatzea.

Halaber, otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak, HABEren arau organikoak onartzen dituenak, HABEren berriazko egitekotzat jotzen ditu, 8.a) artikuluan, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko curriculumak sortu eta diseinatzea; eta 8.f) artikuluan egitasmo horien aholkularitza, jarraipen eta ebaluaziozintzaren ardura izatea.

2000ko urtarrilaren 24ko eta 2006ko martxoaren 13ko Kulturako sailburuaren Aginduek onartzen dute HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumak, euskararen erabileraren jardunbide diskurtsibo-pragmatikoan oinarrituta, lau mailatan sailkatua, maila bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten direlarik; eta ondorioz, euskararen erabileraren hizkuntza-gaitasunaren lau mailotako ebaluazio, kalifikazio eta akreditaziorako irizpideak eta neurriak zehazten.

2001ean, Europako Kontseiluak hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratua onartu zuen erreferentziazko sei maila jakinetara bilduz ikasle helduak bigarren hizkuntza ikastea egin behar duen aurrebidearen nolakoa, eta sei maila horien hizkuntzaren erabilera kategoria deskriptibotan sailkatuz: testuingurua, komunikazio-jarduerak, estrategiak, gaitasunak, prozesuak, testuak eta jarduerak; guztiak komunikazio-gaitasunaren adierazle esanguratsutan zehaztuta.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

449

ORDEN de 19 de enero de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se sientan nuevas bases para la acreditación de los niveles de competencia comunicativa en euskera dispuestos en el Curriculum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos de HABE.

La Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis establece en su artículo 20 que corresponde al Departamento de Cultura la regulación de los diplomas y certificados a expedir al final de cada uno de los niveles que se establezcan en las enseñanzas de alfabetización y euskaldunización. Dicha Ley enumera en su artículo 2.g), entre las funciones de HABE, la propuesta al Departamento de Cultura de expedición de certificados y diplomas de aptitud a quienes superen los cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos en los euskaltegis.

A su vez, el Decreto 34/1996, de 13 de febrero, por el que se aprueban las normas orgánicas de HABE, en su artículo 8.a) especifica como función de HABE la elaboración de planes de estudio y diseños curriculares de euskaldunización y alfabetización de adultos, y en el 8.f) el asesoramiento, seguimiento y evaluación de la aplicación de dichos planes.

Posteriormente, mediante Órdenes de 24 de enero de 2000 y de 13 de marzo de 2006, de la Consejera de Cultura, se aprueban el Curriculum Básico para la Enseñanza de Euskera a Adultos, sus objetivos, contenidos y criterios de evaluación, sistematizados en cuatro niveles fundamentados en un planteamiento discursivo-pragmático del uso del euskera y, consecuentemente, se fijan los criterios y parámetros para la evaluación, calificación y acreditación de los cuatro niveles de HABE en capacitación lingüística del uso del euskera.

En 2001 el Consejo de Europa aprobó el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas: Aprendizaje, Enseñanza y Evaluación de las Lenguas, que establece una serie ascendente de niveles comunes de referencia para describir el dominio que el alumno adulto va adquiriendo en el proceso de aprendizaje de una segunda lengua, definido por categorías descriptivas: el contexto, las actividades comunicativas de la lengua, las estrategias, las competencias, los procesos, los textos y las tareas, delimitadas por escalas de descriptores ilustrativos de competencias comunicativas.

HABE Legea garatuz, 2003ko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioaren aldetiko finantzazioa arautzen du. Dekretu horretan xedatzen da Kulturako sailburuaren Aginduz zehaztuko dela euskararen ezagutza egiaztatzeko sistema, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean erabakitakoari jarraiki eta hizkuntzaren ikas-prozesuko aldien deskripzioan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura bildutako mailen sailkapena aintzat hartuz.

2003ko abuztuaren 3ko Kultura sailburuaren Agindua, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarritutako euskararen ezagutza-maila egiaztatzeko sistema zehazten duena, indarrean jarri zenetik, HABEk egiaztatze-probetarako hamar deialdi egin ditu. Deialdiotara 65.005 azterketari aurkeztu eta 31.844k gainditu dituzte azterketok. Zazpi urte horietan zehar Erakunde honek nabarmen hobetu eta finkatu du kanpo-ebaluazioa, hobekuntza jarraiko prozesu baten baitan eta hizkuntza ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan xedatutakoaren baitan, akreditaziorako irizpide, neurri eta adierazleak zehaztuz, azterketaldiotan parte hartzen duten euskaltegi-tako irakasle eta teknikarien prestakuntza etengabeko ikastaroak antolatuz, egiaztatze-probon zuzenketa homogeneorako bateratze-saioetara deituz, birzuzenketa ahalbideratzen duen tutore-sistema egituratuz eta, ondorioz, kalitate-mailak hobetuz eta berme-irizpideak sendotuz.

Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri berri du 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen duena, euskararen gaitasun-proba guztiak trebetasunetan eta irizpide jakin, zehatz eta homogeneoen baitan egin daitezken, eta bertara bilduz HABEren zuzendari nagusiak, indarrean dagoen HABEk landutako curriculumari jarraiki, 1 (B1), 2 (B2), 3 (C1), 4 (C2) mailak akreditatzeko egin ohi dituen deialdiak.

Horregatik, 2009 eta 2010eko jardunaldietan egiaztatze-probon aplikazioan HABEk izan eskarmentuaren inguruan egin gogoetaldiaren emaitzak kontuan hartuz, HABEren Azterketa-batzordean zein Batzorde Akademikoan ordezkatuta dauden gizarte-eragileen ordezkariek egin ohar eta iradokizunak gogoan, Agindu honek eguneratu eta arautu egiten ditu euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailak akre-

El Decreto 179/2003, de 22 de julio de 2003, que regula la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos y su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone que por Orden de la Consejera de Cultura se determinará un sistema de acreditación de niveles acorde con lo establecido en el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos de HABE, señalando, asimismo, que la descripción de los hitos del proceso de aprendizaje harán referencia también a los niveles establecidos en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Desde la puesta en vigor de la Orden de 6 de agosto de 2003, de la Consejera de Cultura, por la que se determinó el sistema de acreditación de los diferentes niveles de conocimiento del euskera dispuestos en el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos, HABE ha realizado diez convocatorias, a las que se han presentado 65.005 personas, de las que 31.844 han obtenido la correspondiente acreditación. A lo largo de estos siete años esta institución ha ido perfeccionando y consolidando su sistema de evaluación externa en el contexto de un proceso de mejora continua y al amparo de lo dispuesto en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, definiendo los criterios, parámetros y descriptores para la acreditación, programando cursos para la formación continua del profesorado de euskaltegi y personal técnico que participa como examinador, organizando sesiones de homogeneización de criterios para la corrección de las pruebas de aptitud, implantando un sistema tutorial que posibilita la doble corrección y, en consecuencia, la mejora del nivel de calidad, reforzando los criterios garantistas.

Recientemente, el Gobierno Vasco ha puesto en vigor en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, la convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y su equiparación con los niveles establecidos en el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, con el objetivo de que la evaluación de los distintos niveles de las pruebas de capacitación lingüística en euskera se sostenga en criterios de competencia lingüística explícitos, homogéneos y homologados, incluyendo en el mismo las convocatorias de pruebas de acreditación que convoca el Director General de HABE para los niveles 1 (B1), 2 (B2), 3 (C1) y 4 (C2) conforme al currículum vigente elaborado por HABE.

Por tanto, tomando en consideración los resultados del proceso de reflexión llevado a cabo por HABE en torno a la aplicación de las pruebas de capacitación en los ejercicios 2009 y 2010, y las observaciones y propuestas realizadas por los agentes sociales representados en la Comisión de Exámenes y en el Consejo Académico de HABE, la presente Orden actualiza y regula los objetivos, contenidos, criterios

ditatzeko HABEren deialdietako helburu, eduki eta ebaluazio- zein antolaketa-irizpideak.

Bere indarrez,

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.**– Helburua.

Agindu honen helburua da, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak dioenaren arabera, euskararen komunikazio-gaitasunen mailak egiaztatzeko oinarri berriak zehaztea.

**2. artikulua.**– Egiazta daitezkeen mailak.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean jasotzen diren ondorengo mailak egiaztatu ahal izango dira:

- Lehen maila (B1)
- Bigarren maila (B2)
- Hirugarren maila (C1)
- Laugarren maila (C2)

**3. artikulua.**– Lehen maila (B1).

Lehenengo maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da eguneroko testuinguru ezagunetan eta autu orokor eta arruntei buruzko kontaketa eta narrazio sinpleak, instrukzioak, pertsona eta objektuen deskribapen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Halaber, eguneroko harreman hurbilen inguruko so-lasaldietan parte hartzeko gai izango da. Dena den, testuaren mezu nagusia eta orokorra jaso/adieraziko du, eta zenbaitetan, helburuaren arabera eta testuaren egiturak bideratzen duenean, informazio xehea ere jasotzeko gaitasuna izango du.

Entzumenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan berbaldi orokor eta arruntei buruzko kontaketa edo narrazioak ulertzeko, baita instrukzio zuzenak jarraitu eta elkarrizketan parte hartzeko ere. Informazio orokorra, alditan xehea, eta zenbait testuingurutan (zaratarik eza, abiadura normala, ahoskera garbia, erredundantzia, ikus-entzunezko lagungarriak...) ñabardurak jasoko ditu.

Mintzamenean, gauza izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan eta gai orokor eta arrunten inguruan, ikaslearen arteko nahiz jatorrizko hiztunekiko elkarrizketetan parte hartzeko. Baita instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta narrazio edo kontaketa laburrak antolatzeke ere. Dena den, komunikazioari eutsi ahal izateko, zenbait konpentsazio-estrategia erabiliko ditu, hala nola, azaldu nahi duena adibideen bidez adierazi, erdarazko hitza erabili, etab.

de evaluación y organización de las convocatorias de HABE para la acreditación de los niveles de competencia lingüística en euskera.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

Es objeto de esta Orden sentar nuevas bases para la acreditación de los niveles de competencia comunicativa en euskera, en el marco de lo dispuesto por el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos de HABE.

**Artículo 2.**– Niveles susceptibles de acreditación.

Serán susceptibles de acreditación los siguientes niveles recogidos en el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos:

- Primer nivel (B1)
- Segundo nivel (B2)
- Tercer nivel (C1)
- Cuarto nivel (C2)

**Artículo 3.**– Primer nivel (B1).

Quien acredite el primer nivel será capaz de entender y expresar oralmente y por escrito breves instrucciones y descripciones sobre objetos y personas, así como narraciones y relatos simples sobre temas generales y conocidos dentro de contextos habituales y familiares. Asimismo, estará capacitado para participar en conversaciones que se den en un ámbito familiar y cercano. En todo caso, será capaz de captar y dar a entender el mensaje principal y global del texto, e incluso, en algunos casos, según los objetivos y la estructuración del texto, de captar detalles de la información suministrada.

En relación a la comprensión oral, en ámbitos habituales y familiares, comprenderá relatos y narraciones sobre discursos claros y globales, e incluso seguir correctamente instrucciones y participar en la conversación. Será capaz de captar la información general, en algunos casos la información específica, y según las características del contexto (ausencia de ruido, ritmo normal, pronunciación clara, redundancia, ayuda audiovisual...), de captar también ciertos matices.

En la expresión oral, será capaz de participar en conversaciones con estudiantes y hablantes nativos, en ámbitos habituales y familiares y sobre temas generales y cotidianos. También será capaz de dar instrucciones, de hacer breves descripciones de personas y objetos, y de estructurar breves narraciones y relatos. De todos modos, en aras de mantener la comunicación, recurrirá a ciertas estrategias de compensación, como por ejemplo, expresar lo que se quiera decir mediante ejemplos, utilizar la palabra en otra lengua, etc.

Irakurmenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan eta autu orokor eta arrunten inguruan idatzizko kronika eta artikulua laburrak, deskribapenak eta argibideak ulertzeko. Irakurketa, helburuaren arabera egiteko eta irakurgaiaren egiturak bideratzen duen neurrian (informazioaren antolaketa, kateamendua, zenbatekoa, elementu ikonikoak, hizkuntzaren aberastasuna...) informazio orokorra edo xehea aurkitzeko gai izango da.

Idazmenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan eta autu orokor eta arrunten inguruan esperientziak deskribatzeko, gertaerak kontatzeko, oharrak idazteko.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bate-ratuari bagagozkio, maila hau gainditu duena gai da hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, autu ezagunei buruzkoak badira edo lan, ikasketa zein aisialdiaren esparrukoak. Gaiak ezagunak edo bere interesgunekoak badira, testu soilak eta koherenteak osatzeko gai da; baita bere esperientzien inguruko gertaeren zein dituen nahi eta asmoen berri emateko ere. Eta gai da, orobat, bere iritziak labor-labor arrazoitzeko eta bere asmoak azaltzeko.

#### 4. artikulua.– Bigarren maila (B2).

Bigarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da ohiko mintzagai eta egoera ezagunei buruzko solasaldi eta jardunak, narrazioak, deskribapenak, instrukzioak eta azalpen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Dena den, zailtasunak izango ditu zeregin horietan ñabardurak jaso eta adierazteko garaian.

Entzumenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan ohiko mintzagaiei buruzko solasaldi eta jardunetan parte hartzeko, baita instrukzioak eta narrazioak jarraitu eta autu ezagun baten inguruko azalpenak ulertzeko ere. Informazio orokorra eta xehea jasoko ditu, baina zenbait testuinguru eta jatorrizko hitzunen lagunarteko hizketan ñabardurak jasotzeko zailtasunak izango ditu. Dena den, zailtasun hauek entzumen-estrategiaz baliatuz gaindituko ditu, komunikazio-haria eten gabe.

Mintzamenean, nor izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan ohiko gaien inguruan ikaslearen arteko nahiz jatorrizko hitzunikiko elkarrizketetan parte hartzeko. Baita instrukzioak emateko, narrazioak edo kontaktak egiteko eta gai baten inguruan azalpenak egin eta iritziak emateko ere.

Irakurmenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan ohiko gaien inguruko idatzizko narrazio, kronika, erreportaje eta artikulua, deskribapenak, ipuinak eta argibideak ulertzeko. Informazio orokorra eta zehatza aurkituko du, ia beti. Dena den, irakurgaiaren egituraketak (informazioaren

En cuanto a la comprensión lectora, será capaz de comprender crónicas y artículos breves, descripciones e instrucciones, en ámbitos habituales y familiares y en conversaciones generales y cotidianas. Dependiendo del objetivo de la lectura y, en la medida en que la organización del texto facilite la comprensión del mismo (estructuración de la información, encadenamiento, cantidad, elementos icónicos, riqueza de la lengua...), será capaz de apropiarse de la información general y de discernir matices de la misma.

En relación a la expresión escrita, será capaz de describir experiencias sobre cuestiones generales y cotidianas, contar acontecimientos y escribir notas sobre situaciones habituales que le son familiares.

En cuanto al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, la persona que haya superado este nivel, será capaz de comprender los puntos generales de textos escritos en lengua estándar, que versen sobre asuntos familiares, trabajo, estudios o tiempo libre. Si los temas son habituales o de su interés, podrá desarrollar textos simples y coherentes, incluso para dar a conocer experiencias vividas o deseos e intenciones, al igual de expresar brevemente sus opiniones e intenciones.

#### Artículo 4.– Segundo nivel (B2).

Quien acredite el segundo nivel será capaz de comprender y expresar oralmente o por escrito, conversaciones, narraciones, descripciones, instrucciones y explicaciones breves sobre temas habituales y en ámbitos que le sean familiares. Aun así, podrá tener dificultades a la hora de captar y expresar ciertos matices al abordar dichas tareas.

En cuanto a la comprensión oral, tendrá capacidad para participar en conversaciones e interacciones sobre temas actuales en contextos habituales y familiares; también será capaz de seguir instrucciones y narraciones y de comprender las explicaciones sobre un tema conocido. Identificará la información general y los detalles relevantes de un discurso, pero puede tener ciertas dificultades a la hora de apropiarse de matices en algunos contextos y conversaciones coloquiales entre hablantes nativos. De todos modos, superará estas dificultades mediante estrategias de comprensión oral, sin interrumpir el hilo de la comunicación.

En la expresión oral, en contextos habituales y familiares, será capaz de participar en conversaciones entre estudiantes, o bien con hablantes nativos, sobre temas comunes. También tendrá capacidad para dar instrucciones, realizar narraciones o relatos y dar explicaciones y opiniones sobre un tema.

En cuanto a la comprensión lectora, será capaz de comprender narraciones, crónicas, reportajes, artículos, descripciones, cuentos e instrucciones escritas sobre temas comunes y en contextos habituales y familiares. Casi siempre identificará la información global y explícita. Ahora bien, la estructuración del texto

antolaketak, kateamenduak, zenbatekoak...) zaildu dizaioke ulermen-maila.

Idazmenean, gai izango da ikaslearen eguneroko testuinguru ezagunetan ohiko gertaeren inguruan idatziz esperientziak deskribatzeko, ipuinak kontatzeko, oharra eta gutunak egiteko.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria bagozkio, maila hau gainditu duena gai da autu zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten idatzietako ideia nagusiak ulertzeko; baita bere interesguneko maila jasoagoetakoak ere. Jatorrizko hiztunekin jaritasunez eta naturaltasunez mintza daiteke, elkar ulertzeko solaskideek ahalegin berezirik egin gabe. Mintzaldi argiak eta xeheak sortzeko gai da, eta horiei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanaz.

#### 5. artikulua.— Hirugarren maila (C1).

Hirugarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da kultura orokorraren mailako edozein hizketaldi ulertzeko; baita zuzentasunez, egokitasunez eta aberastasunez komunikatzeko ere. Saiakera arruntak, narrazioak eta argibide teknikoak ulertuko ditu. Testu argiak eta ondo egituratuak idazteko gai izango da, norbere ikuspegia luze samar azalduz. Dena den, zailtasunak izango ditu autu espezializatuei eta erregistro bereziei buruzko testuak ulertu eta adierazteko.

Entzumenean, testu luzeak ulertzeko gai izango da, argi egituratuta ez daudenean ere. Gai izango da informazio orokorra eta xehea jasotzeko eta diskurtsoaren komunikazio-asmoak ulertzeko, loturak agerian adierazten ez badira ere. Dena den, gai espezializatuei buruzko azalpenetan xehetasunak atzemateko zailtasunak izango ditu.

Mintzamenean, nor izango da kultura orokorraren mailako edozein gai eta egoeratan, hiztunen arteko elkarrizketetan parte hartzeko, hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabiliz. Gai izango da instrukzioak eta azalpenak emateko, narrazioak eta kontaketak egiteko eta norberaren iritziak eta argudioak zuzentasunez eta aberastasunez defendatzeko.

Irakurmenean, gai izango da eguneroko bizitzan, gizarteetan, lanean edota ikasketetan aurkituko dituen gertakizunetan oinarritutako testu luzeak eta konplexuak ulertzeko. Baita literaturako testuak ere. Gai izango da argibide luzeak ulertzeko eta jarraitzeko eta idazketa ezberdinak aintzat hartzeko.

Idazmenean, gai izango da ondo egituratutako testu argiak idazteko (narrazioak, instrukzioak, azalpenak

(organización de la información, encadenamientos, cantidad...) puede dificultarle el nivel de comprensión.

En la expresión escrita, en contextos habituales y familiares relativos a hechos comunes, será capaz de describir experiencias, contar cuentos, tomar notas y redactar cartas.

En cuanto al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, la persona que haya superado este nivel será capaz de comprender las ideas principales de escritos sobre asuntos tanto concretos como abstractos, incluso las de aquellos que, siendo de un nivel más elevado, sean de su interés. Podrá expresarse con soltura y naturalidad con hablantes nativos, sin que los interlocutores tengan que realizar un esfuerzo especial para entenderse mutuamente. Será capaz de llevar a cabo conversaciones claras y detalladas y de defender un determinado punto de vista, aportando argumentos a favor y en contra de cada una de las opciones.

#### Artículo 5.— Tercer nivel (C1).

Al acreditar el tercer nivel, tendrá capacidad para comprender cualquier conversación sobre cultura general, así como comunicarse correctamente, con propiedad y con riqueza. Comprenderá ensayos corrientes, narraciones e instrucciones técnicas. Será capaz de escribir textos claros y bien estructurados, dando a conocer su punto de vista con amplitud. De todos modos, tendrá dificultades a la hora de entender y de poder expresarse sobre temas especializados y registros especiales.

En relación a la comprensión oral, participará con eficacia en cualquier contexto interactivo sobre temas de cultura general y llegará a comprender las instrucciones, explicaciones, narraciones, argumentaciones, conversaciones... que reciba bien sea en lenguaje estándar como en una variante dialectal. Será capaz de discernir la información principal de la secundaria; pero podría presentar dificultades a la hora de captar matices en las explicaciones sobre temas especializados.

En la expresión oral, en temas y situaciones de cultura general, tendrá capacidad para participar en conversaciones, expresándose con fluidez y espontaneidad. Será capaz de dar instrucciones y explicaciones, de narrar y relatar sucesos, y de defender sus opiniones y argumentos con corrección y riqueza.

En cuanto a la comprensión lectora, tendrá capacidad para comprender textos extensos y complejos de carácter literario o basados en hechos de la vida cotidiana, de carácter social, laboral o académico. Será capaz de comprender y seguir instrucciones largas y entender escritos de complejidad variada.

En cuanto a la expresión escrita, será capaz de escribir textos bien estructurados (narraciones, instruc-

eta argudioak), testu-erari eta hartzaileari egokitutako idazkera aukeratuz, eta egokitasunez, zuzentasunez eta aberastasunez idatziz.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bate-ratuari bagagozkio, maila hau gainditu duena gai da testu luzeak eta korapilatsuak irakurtzeko. Eta gai da, orobat, testu horietako esanahi implizituei antzemateko. Badaki jariatutasunez eta bat-batean gauzak adierazten, eta jardun horretan, ez zaio sumatuko esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake gizarte-esparruan, akademikoan zein lan-munduan. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita autu konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.

#### **6. artikulua.**– Laugarren maila (C2).

Laugarren maila burutzerakoan ikaslea gai izango da kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko mintzagaien inguruan elkarrizketa jariatutasun handiz eta zehaztasunez mantentzeko eta iritziak eta azalpenak nabarduraz emateko; baita konplexutasun handiko egoeratan ere. Halaber, gai izango da edozein hizketaldi ulertzeko, zuzenekoak, komunikabideetakoak eta jatorrizko hitzunenak, bizitza-inguruko euskalkietan izandakoak barne. Norbere espezialitateko mintzaldiak bere osotasunean jasoko ditu, eta nor izango da bere jakintza-arloko zein kultura orokorreko gai konplexuen inguruko artikulua eta txostenak egokitasunez eta eraginkortasunez idazteko.

Entzumenean, gai izango da kultura-maila zabaleko, norbere intereseko edota norbere jakintza-arloko mintzaldiak bere osotasunean ulertzeko. Bizitza-inguruko euskalkietan izandako berbaldia ere ez zaio arrotza izango, eta, horrelakoetan, gai izango da me-zua bere osoan jasotzeko.

Mintzamenan, kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko autuen inguruan, gai izango da elkarrizketatan eta eztabaidetan parte hartzeko, eta iritziak eta azalpenak emateko, betiere, erabiliko dituen hizkuntz baliabideak egoerara egokituz.

Irakurmenean, gai izango da batuan zein bizitza-inguruko euskalkian idatziriko kultura-maila goreneko testuak eta testu espezialduak ulertzeko.

Idazmenean, gai izango da kultura-maila orokorreko nahiz goragoko gizarte-esparruko eta bere espezialitateko testuak idazteko, hizkuntza eraginkortasunez elkarreragin-egoerara egokituz.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bate-ratuari bagagozkio, maila hau gainditu duena gai da irakurtzen edo entzuten duena erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik dato-

ziones, explicaciones y argumentaciones), adecuando el estilo del texto al receptor y escribiendo con corrección y riqueza.

En cuanto al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, la persona que haya superado este nivel es capaz de leer textos largos y complejos. Así mismo, es capaz de captar los significados implícitos de esos textos. Se expresa con fluidez y espontaneidad, sin tener que buscar de forma muy evidente las expresiones adecuadas en el ámbito social, académico y laboral. Es capaz de producir textos claros, bien estructurados y detallados, incluso sobre asuntos complejos, haciendo un uso correcto de los mecanismos de estructuración, articulación y coherencia textual.

#### **Artículo 6.**– Cuarto nivel (C2).

Al término del cuarto nivel, tendrá capacidad para entablar conversaciones con fluidez y precisión sobre temas de cultura superior y sobre aquellos que son propios de su especialidad. Será capaz de expresar opiniones y dar explicaciones detalladas, incluso en situaciones muy complejas. Asimismo, será capaz de comprender lo derivado de la interacción –conversaciones en los medios de comunicación o de hablantes nativos, incluidas las desarrolladas en las variantes dialectales locales–. Captará en su integridad discursos hablados de su especialidad y podrá escribir con corrección y rigor artículos e informes, bien sobre un tema de su ámbito, bien sobre temas complejos de cultura general.

En referencia a la comprensión oral, será capaz de entender con precisión conferencias de nivel cultural elevado, de su propio interés o área de conocimiento. Las conversaciones en las variantes dialectales propias tampoco le resultarán extrañas y, en esas situaciones, será capaz de captar el mensaje en su integridad.

En la expresión oral, será capaz de participar en conversaciones y debates sobre temas de nivel cultural elevado y en aquellos propios de su especialización; será capaz, incluso, de dar opiniones y explicaciones, siempre y cuando adapte los recursos lingüísticos a la situación de comunicación.

En cuanto a la comprensión lectora, será capaz de entender textos de nivel cultural elevado y textos especializados escritos bien en euskera batua, o bien en variantes dialectales propias.

En cuanto a la expresión escrita, será capaz de escribir textos de un nivel cultural y social elevado, y los propios de su dominio o especialización, haciendo un uso adecuado de la lengua respecto al contexto y a la situación comunicativa.

En cuanto al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, quien haya superado este nivel es capaz de comprender fácilmente lo leído y lo escuchado. Sabe reconstruir y expresar breve y coheren-

rrren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jarioetasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, esanahiaren ñabardura txikiak bereiztuz, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.

### 7. *artikulua*.– Ebaluazio-irizpideak.

Kultura sailburuaren 2000ko urtarrilaren 24ko Aginduak eta 2006ko martxoaren 13koak ebatzitako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ageri denari jarraiki, komunikazio-eraginkortasuna izango da ebaluazio-irizpide nagusia, azterketariak eskatu zaion egitekoa, zuzentasunez eta egokitasunez, Agindu honetan 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutako maila eta gaitasun bakoitzaren zehaztasunetara ekarriz.

– Testuinguruarekiko eta testuarekiko egokitasuna: egoerari eta hartzaileari egokitzeko gaitasuna. Erregistroa.

– Ideien koherentzia; diskurtsoaren antolaketa eta garapena (konexioa eta kohesioa); testu-erarekiko egokitasuna. Puntuazioa. Ahozkoan, prosodia.

– Erabilitako baliabide linguistikoen zuzentasuna eta aberastasuna. Gramatikarekiko egokiera. Ortografia. Lexikoa.

### 8. *artikulua*.– Irizpideak bateratzeko saioak.

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ageri denari jarraiki, aztertzaileen gaitasun-maila zabaltzeko eta sendotzeko, eta gaitasun-probetan irizpide bertsuak erabili eta zuzenketa-prozesuari zehaztasuna eta bermea emateko, ebaluazio-irizpideen inguruko bateratze-saioak antolatuko ditu HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuaren Ebaluazio-atalak.

Saio hauek mailaz maila antolatuko dira azterketa-deialdi bakoitzaren hasieran, eta aurrez aurre edo/eta on-line teknologiak baliatuz bideratuko dira.

Egiartzatze gintzan aztertzaile izan ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da bateratze-saiootan parte hartu eta HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuaren Prestakuntza-atalak aztertzaile izateko zehaztutako irizpideen baitan prestatutako proba gaintzea.

Behin proba hori gaintuz gero, aukera izango du aztertzaileak hurrengo urteetako deialdietan gaitasun-proben egiaztapenetan parte hartzeko, betiere, urterik urte antolatzen diren bateratze-saiootan parte hartuz, egiteko horretarako izendatua bada.

temente la información y los argumentos que provienen de diferentes fuentes, tanto escritas como orales. Sabe expresar las cosas de improviso, con mucha soltura y exactitud, diferenciando los pequeños matices del significado, incluso en situaciones de gran complejidad.

### *Artículo 7*.– Criterios de evaluación.

En virtud de lo dispuesto en el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos aprobado por las Órdenes de la Consejera de Cultura de 24 de enero de 2000 y de 13 de marzo de 2006, la eficacia comunicativa constituirá el criterio de evaluación básico, en cumplimiento de las funciones esperadas del acto comunicativo propuesto, que deberá desarrollarse con corrección y adecuación, en el nivel correspondiente de los descritos en los artículos 3, 4, 5 y 6 de esta Orden, en el marco de las especificidades enumeradas para cada destreza lingüística.

– Adecuación al texto y al contexto: adecuación a los usos lingüísticos del contexto y del receptor. Registro.

– Coherencia en las ideas, organización y desarrollo del discurso (conexión y cohesión), adecuación a la tipología textual. Puntuación. Prosodia, en la prueba oral.

– Corrección y riqueza en el uso de los recursos lingüísticos. Adecuación a la gramática. Ortografía. Léxico.

### *Artículo 8*.– Sesiones de unificación de criterios.

En virtud de lo establecido en el Currículum Básico para la Enseñanza del Euskera a Adultos, de cara a ampliar y fortalecer el nivel de capacitación de los examinadores, y utilizar criterios homogéneos en las pruebas de acreditación y dotar de precisión y garantía al proceso de corrección, la Sección de Evaluación del Servicio de Didáctica de la Lengua de HABE organizará sesiones de unificación de los criterios de evaluación.

Estas sesiones se organizarán por nivel de competencia, al inicio de cada convocatoria y se llevarán a cabo presencialmente y/o haciendo uso de las tecnologías on-line.

Para poder ser examinador en este proceso de acreditación, será requisito imprescindible haber participado en dichas sesiones de unificación y haber superado la prueba elaborada por la Sección de Formación del Servicio de Didáctica de la Lengua de HABE.

Quien supere dicha prueba podrá participar en las pruebas de acreditación de las convocatorias de los próximos años, siempre y cuando tome parte en las sesiones de unificación organizadas cada año y sea nombrado a tal efecto.

**9. artikulua.**– HABEren gaitasun-probetarako deialdiak.

HABEren zuzendari nagusiak azterketotarako deialdiak egin ahal izango ditu urterik urte, euskaltegi-etako ikas-prozesu bakoitza burutzerakoan ikasleen gaitasun komunikatiboa egiaztatzeko. Bi deialdi-mota egin ahal izango ditu: batetik, ohikoak, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetako ikasleei zuzenduak, eta bestetik, bereziak, gizarte-behar jakinei erantzuna eman ahal izatera bideratuak. Izaera honetara bilduko dira Euskal Etxeetako ikasleei dagozkien deialdiak.

HABEren zuzendari nagusiak zehaztuko ditu deialdi berezi bakoitzaren betebeharrekoak, betiere Agindu honen 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 16., 23., 24., 26. eta 29. artikuluetan xedatutakoa bere horretan gordez eta deialdi bereziaren arduradunak izan emaitzen berri Azterketa-batzordeari emanaz.

**10. artikulua.**– Deialdiotan parte hartzeari buruz.

Egiaztatze-proba egin ahal izateko ikasleak bete behar dituen baldintzak HABEren zuzendari nagusiaren egiaztatze-deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

**11. artikulua.**– Ziurtagiriak lortzeko bidea.

Agindu honetan zehazten diren ziurtagiriak lortzeko, deialdi eta maila bakoitzerako HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuak prestatutako gaitasun-proba gaingitu beharko da.

**12. artikulua.**– Egiaztatzeko gaitasun-proben ezaugarri orokorrak.

Deialdiro, HABEren zuzendari nagusiaren Ebazpenez jakinaraziko dira maila bakoitza egiaztatze-ko azterketa-eredua eta deialdiotako egiaztatze-prozesuaren gaineko xehetasunak. Mailaz mailako hizkuntzaren komunikazio-gaitasuna, entzutezko eta idatzizko ulermena eta ahozko eta idatzizko ekoizpena, berariazko probaz ebaluatuko dira.

**13. artikulua.**– Azterketa-batzordea.

Azterketa-batzordea eratuko du HABEren zuzendari nagusiak, gaitasun-probon deialdiak prestatzeko eta gaitasun-proben egikaritzea antolatzeko. Urtero izendatuko ditu batzordekideak, Ebazpenaren bitartez.

Hauek izango dira Azterketa-batzorde horren funtzioak:

– Maila bakoitza egiaztatzeko azterketa-ereduak aztertu eta onartzea.

**Artículo 9.**– Convocatorias de pruebas de aptitud de HABE.

La Dirección General de HABE convocará anualmente pruebas para la acreditación de estos niveles de competencia lingüística en euskera, como culminación de cada una de las fases del proceso de aprendizaje desarrollado en los euskaltegis. Podrá realizar dos tipos de convocatorias: ordinarias, dirigidas al alumnado de los euskaltegis y centros de autoaprendizaje inscritos en el Registro de HABE, y extraordinarias, para dar respuesta a necesidades sociales específicas. Dentro de esta última se contemplarán las convocatorias dirigidas al alumnado de los Centros Vascos-Euskal Etxeak.

La Dirección General de HABE determinará en cada convocatoria extraordinaria las especificidades de la misma, cumpliendo en todo caso los artículos 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 16, 23, 24, 26 y 29 de esta Orden y comunicando quien actúe como responsable de la convocatoria extraordinaria los resultados de la misma a la Comisión de Exámenes.

**Artículo 10.**– Sobre la participación en estas convocatorias.

Las condiciones que debe cumplir la persona que quiera realizar la prueba de acreditación se determinarán en cada convocatoria por Resolución de la Dirección General de HABE.

**Artículo 11.**– Modo de obtener el certificado.

Para la obtención de los certificados a los que se refiere esta Orden, será necesario superar la prueba de competencia elaborada por el Servicio de Didáctica de la Lengua de HABE para cada convocatoria y nivel.

**Artículo 12.**– Características generales de las pruebas de acreditación.

Cada convocatoria establecerá, por Resolución de la Dirección General de HABE, el modelo de examen y las especificaciones, apartados y características de estas pruebas para cada nivel. Los distintos niveles de competencia comunicativa se evaluarán en pruebas específicas que midan las destrezas del uso de la lengua: comprensión auditiva y escrita, producción auditiva y escrita.

**Artículo 13.**– Comisión de Exámenes.

La Dirección General de HABE creará una Comisión de Exámenes, cuyos miembros serán nombrados mediante Resolución anual, para preparar las convocatorias de las pruebas de acreditación y organizar el desarrollo de las mismas.

Serán funciones de la Comisión de Exámenes:

– Analizar y validar el modelo de examen para la acreditación de cada nivel.

– Egiaztatze-prozesuaren garapena ahalbidetuko duten irizpideak adostea.

– Epaimahaietako emaitzak jaso, bildu eta akta idaztea.

– Epaimahaiek jarritako emaitzak jaso ondoren, egiaztagiriak luzatzeari begira eta Erregistroan alta eman dakien, emaitzok HABEren zuzendari nagusiarri jakinaraztea.

– Azterketen ebaluazioa egin eta hobekuntzen proposamenak bideratzea.

– Azterketetan gorabeherarik sortuko balitz, aktak behatu eta ondoriozko txostena egitea.

– Euskararen eta beste hizkuntzen akreditazio-gintzan erabiltzen diren baliabideak eta prozesuak arakatztea.

– Gaitasun-probetan parte hartuko duten aztertzailen prestakuntza bideratzea.

– Gaitasun-probak landu eta prestatzeko zein azterketok egin ondorengo ikerketagintzarako irizpideak finkatzea.

– Agindu honetan epaimahaien zeregintzat jotzen diren egitekoak bere egitea, deialdi bereziren batean bere osaketa beharrezkotzat jotzen ez bada.

– Oro har, deialdiarekin zerikusia duten gaietan HABEren zuzendari nagusiak eskatutako gaiak lantzea.

Azterketa-batzordea honako hauek osatuko dute:

– Presidentea: HABEren Hizkuntzaren Didaktika-zerbitziburua izango da.

– Kideak: batetik, euskaltegi publikoetako bi ordezkari eta euskaltegi pribatuetako eta euskara autoikaskuntzarako zentroetako lau ordezkari; eta bestetik, egiaztatze aldirako hiru lurralde-arduradunak, Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuko Curriculum- eta Ebaluazio-ataletako arduradunak eta Zerbitzu bereko Programa Bereziak ataleko arduraduna, idazkari lanetan.

Idazkari denak egiteko berezi hauek izango ditu:

– Deialdiotako ezaugarri, irizpide eta gutxienekoak bete eta betearaztea, aldiari ekintzen aktak idatziz.

– Agindu honetan zehaztutako prozedura eta urrats oro egoki betetzen dela ziurtatzeko, prozedurak gertutik jarraitu, eta okerrik bada, zuzenaraztea.

Beharrezko denetan, HABEren zuzendari nagusiak ordezkari bat ere izendatuko du, euskararen gaitasun-

– Acordar los criterios que garanticen el desarrollo del proceso de acreditación.

– Recabar las calificaciones del tribunal y levantar acta.

– Notificar a la Dirección General de HABE las calificaciones emitidas por los tribunales, en orden a la emisión de los correspondientes certificados y su consiguiente alta en el Registro.

– Realizar una evaluación de los exámenes y dirigir las propuestas de mejora.

– En caso de que se produjeran incidentes en el desarrollo de las pruebas, examinar las actas y emitir el correspondiente informe.

– Examinar los recursos y procesos al uso en la acreditación de los procesos de aprendizaje del euskera y de otras lenguas.

– Diseñar los programas de capacitación del personal técnico que vaya a participar en las pruebas de competencia.

– Determinar los criterios que presidan la investigación referente tanto al diseño y elaboración de las pruebas de acreditación como a la de los resultados obtenidos en la aplicación.

– Asumir las funciones descritas en esta Orden para los tribunales en las convocatorias extraordinarias en las que no se prevea específicamente su constitución.

– En general, asesorar a la Dirección General de HABE en relación a las materias objeto de estas convocatorias.

La Comisión de Exámenes estará formada por:

– Presidente: Responsable del Servicio de Didáctica de la Lengua de HABE.

– Vocales: por un lado, dos representantes de los euskaltegis públicos y cuatro representantes de los euskaltegis privados y centros de autoaprendizaje del euskera; por otro, los tres responsables territoriales del proceso de acreditación, los responsables de las Secciones del Desarrollo Curricular, Evaluación y Programas Específicos del Servicio de Didáctica de la Lengua, correspondiendo a esta última persona las funciones de secretaria.

Serán funciones propias de esta secretaría:

– Cumplir y hacer cumplir los contenidos, los criterios y los mínimos establecidos para estas convocatorias, recogiendo en acta las incidencias que se produjeran.

– Velar por que todos los procedimientos y fases detalladas en esta Orden se cumplan debidamente, haciendo seguimiento de los mismos y haciendo subsanar los errores cuando sea necesario.

En los casos en que se estime necesario, la Dirección General de HABE designará suplentes, garanti-

mailak egiaztatzeko probok aurrera eramán ahal izateko.

**14. artikulua.**– Lurralde-batzordeak.

Lurraldez lurraldeko antolaketa burutu ahal izateko, HABEren zuzendari nagusiak lurralde-batzordeak antolatuko ditu, Azterketa-batzordearen gidaritzapean. Lurralde-batzorde bakoitzak gutxienez bost kide izango ditu.

HABEren zuzendari nagusiak ebazpenez izendatuko ditu urtero lurralde-batzordeetako kideak HABEren teknikari, euskaltegi-sare ezberdinetako irakasle, edota helduen euskalduntze/alfabetatzean aditu direnen artean, betiere, euren ibilbide profesionala kontuan izanda.

Beharrezko denetan, HABEren zuzendari nagusiak ordezkotako bat ere izendatuko du, euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko probok aurrera eramán ahal izateko.

Hauek izango dira lurralde-batzordeon egitekoak:

- Gaitasun-probok egingo diren leku egokiak aukeratzeko irizpideak finkatzea.
- Gaitasun-proba bakoitzaren antolamendu-arauak jarri eta ordutegiak zehaztea.
- Azterketariak dagozkien azterlekuetan banatzea.
- Onartuen zerrenda gainbegiratzea.
- Matrikulatzeko baldintzak beteak izan eta onartuen zerrendan ageri ez direnen erreklamazioei erantzuna proposatzea eta bideratzea.

Lurralde-arduraduna izango da lurralde-batzordeon buru, eta lurralde-batzordean izan proposamenak Azterketa-batzordera eramango ditu.

**15. artikulua.**– Mailaz mailako epaimahaiak.

